



B

BATEKIN

Gizarte Partaidetza
Participación Social

Elkartearen fitxa

● Elkartearen izena: Medicus Mundi Araba

● Esparrua (bakar bat aukeratu) :

Komunitarioa	Gizarte bazterketa	Dibertsitate Funtzionala	Garapenaren aldeko lankidetzak
Ingurumena	Babes zibila	Soziosanitarioa	Emakumea eta Genero berdintasuna
Giza eskubideak	Adikzioak mendekotasuna	Osasuna	Kirola
Hezkuntza eta Prestakuntza	Animaliak babestea	Immigrazioa	Kultura
Gazteria eta denbora libre	Euskararen sustapena	Komunikazioa	

● Erakundearen azalpen laburra: (4 lerro)

Medicus mundi araba irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Ez dago botere publikoen mendean, ezta ezein erakunde edo talde ekonomiko, politiko eta erlijiosoren mendean ere. Mundu bidezkoagoaren aldeko lanean eta elkarlanean ari garen pertsona talde batek osatzen dugu, herri ahulenen eta pobreenen osasun eta giza egoera hobetuta, eta herrialde pobretuetako nahiz gure ingurune hurbilenerako bidegabekeriak eta desberdinkeriak salatuta.

Bazkideok, boluntariook eta teknikariok lankidetzan ari gara Ruanda, Peru eta Ekuadorreko komunitateek egiten duten ahaleginarekin, haien giza garapena sustatzeko, betiere osasunaren sustapenean arreta berezia pausatuta. Bizi garen mundua eraldatu nahi dugu, jendearen elkartasuna eta konpromisoa sustatuta, pobrezia errotik desagerrarazteko eta OSASUNA pertsona guztien eskura dagoen eskubide bat izan dadin lortzeko.

● Boluntarioen programa:

Boluntarioak behar ditugu Arabako gizarteari giza eskubideak zertan dautzan azaltzen laguntzeko; osasunerako eskubidea, batez ere. Halaber, hemen eta herrialde pobretuetan zer lan egiten dugun azaldu behar da. Era askotako lankidetzak bideak ditugu:

- Elkarreak dituen sare sozialak, bloga eta webguneak erabili eta mantentzea.
- Gure jardueri buruzko argazki-artxiboak egitea.
- Buletin, urteroko txosten eta abarretarako artikulak idaztea.
- Materialak diseinatzea.
- Prentsaurreko eta beste espazio publiko batzuetara bertaratzea: hitzaldiak, tailerrak, etab.
- Komunikazio-estrategia berriak zehazteko bileretan parte hartzea.



● **Egunak eta orduak:**

Ez dago ezarritako ordutegirik, ezta datarik ere. Lankidetzaren boluntario bakoitzaren disponibilitatearen arabera egiten da.

● **Betebeharrak:** (adin nagusikoa izan beharra, formazioa...)

Gizarte kezkak eta giza eskubideen aldeko gizarte konpromisoa izatea.

18 urtetik gorako edonor.

Ez dago gutxieneko konpromisorik parte hartzeko; hau da, zuk ikusiko duzu zenbat denbora duzun eta zenbat denboraz aritu nahi duzun.

● **Harremanetarako:** (kontakturako pertsona, telefonoa, emaila, helbidea)

Marian Uriarte

marian.uriarte@medicusmundi.es.

Tel.: 945 288031

